



Estatu Batuetako

ingurumen-merkatuaren

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



LABURPEN

EXEKUTIBOA

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Estatu Batuetako ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agenteei aplikatzeko moduko balizko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzean kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala, Airearen kalitatea (airea eta kutsadura), Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Ekosistemak eta Fabrikazio ekoeraginkorra eta Ekodiseinua.*

Ingurumen-merkatuaren balioaren ikuspegitik, zalantzarik gabe **Estatu Batuetakoa da ingurumen arloko munduko merkatu handiena, 419 mila milioi dolarreko** balioa izan zuena 2020an eta **hazkunde metatuaren tasa % 4an** mantendu duena 2010-2020 urteetan.

Kateei dagokienez, lehenetasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei. Kontuan hartu da bereziki **Uraren ziklo integralaren** katea, Estatu Batuetan milioi askotako inbertsioak aurreikusi baitira uraren sektoreko azpiegiturak berritzeko.

Gestión de Residuos



Suelos Contaminados



Ciclo integral del agua




Calidad ambiental



Ecosistemas



Fabricación Ecoeficiente y Ecodiseño



2021. urte hasieratik Joe Biden da Estatu Batuetako 46. presidentea, eta berarekin guztiz aldatu da Donald Trumpek ezarri zuen politiken norabidea. Estatu Batuak dugu **atmosfera CO2 emisio gehien isurtzen dituen munduko bigarren herrialdea** (2020an 4.535 megatona), eta horregatik hain zuzen ikuspegi aldaketa hori mugari kritikoa da ingurumen arloan. Egungo gobernuak **jarduera-ildo berriak** zehaztu ditu, horien artean bereziki aipatzekoak direlarik **energia garbien sustapena, ekosistemen babesa eta azpiegitura hidrikoetako sistemak hobetzea** inbertsio publiko gehiago eginda.

Azken puntu horri dagokionez, Estatu Batuetako azpiegiturak obsoleszentzia egoera larrian daude eta hori inon baino nabarmenagoa da uren banaketa eta tratamendu sistemetan. Gabezia horri erantzuteko, Biden Administrazioak proposatu du 2022an **111.000 milioi dolar bideratzea proiektu akuiferoetarako "Build Back Better"** azpiegitura-planaren baitan.

Ingurumen arloko araudiei dagokienez, Estatu Batuetako lege-esparrua **"aginte eta kontrol" ikuspegian** oinarritzen da, hau da, Kongresuak hainbat estatutu federal ematen ditu eta Estatuaren esku uzten du horiek gauzatu eta aplikatzeko lana, aukera emanez Estatuari maila federalean finkatutako araudia hobetzeko.

Hori dela eta, **ingurumen arloko araudi aplikagarrien eskakizunak desberdinak izan daitezke Estatu batetik bestera.** Azterlan honetarako **Ekialdeko Kostako bost Estatu garrantzitsu** aukeratu dira, euren ezaugarri ekonomiko eta soziodemografikoengatik ingurumenarekin inplikatuak daudenak eta, ondorioz, sektore horretan jarduera handiena dutenak. Hauek dira: *Maryland, Virginia, Ipar Karolina, Hego Karolina eta Georgia.*

Oro har, aukera interesgarriak sortu dira **Ur Garbiaren (CWSRF)** eta **Ur Edangarriaren (DWSRF) Errotaziozko Estatu Funtsei** esker,

denak ere Estatuaren esku jarriak, urak tratatzeko eta edangarritzeko azpiegitura-proiektuak gara ditzaten. Covid-19aren ostean, funts horien berraktibazioari eta pixkanakako suspertze ekonomikoari esker, hainbat proiektu jarri dira martxan aztertutako Estatuaren udalerrri garrantzitsuenetan.

Merkatuko aukerak sortzeari dagokionez, aurreikusten da herriek eta udalerriek proiektu horien testuinguruan era askotako konponbide eta teknologiki eskatuko dituztela sektoreko arazo nagusiei aurre egiteko: hoditeriako gabeziak eta ihesak, uholdeetarako konponbideak eta uraren kalitatearen monitorizazio eta kontrola. Aukerak egon daitezke, beraz, eskaera horiei erantzuteko gai diren goi-mailako konponbide teknologikoak eskaintzen dituzten enprezentzat edo horrelako konponbideak eskaintzen dituzten tokiko enpresen zerbitzuak osatu zein hobetzeko ahalmena dutenentzat.

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60